



Euskara ikastaroak

merkatariarentzat eta ostalarientzat

Inoiz pentsatu duzu euskara lagungarria izan litekeela zure bezeroak erosoago senti daitezen? Eta euskaraz dakien bezeroari **EGUN ON, ZER NAHI DUZU?** esatea, lehenengo hitza euskaraz eginez? Askok, gainera, eskertuko dizute ahalegin hori, begi onez ikusten baititugu atseginez hartzen gaituzten pertsonak.

Horretarako, euskara ikasteko edo dakizun euskara hobetzeko bidaltzen dizugu Getxoko euskaltegien eskaintzari buruzko informazioa: betiko ikastaroak baina baita autoikaskuntza ikastaroak ere, denak zuen ordutegietara moldatuak. Ikastaro hauek lagunduko dizute **zeure euskara hobetzen edo bezeroak euskaraz artatzen.**

Ikastaro presentzialak, oinarrizko maila:

1 Getxoko Udal Euskaltegia (Romo):

- Astelehen eta ostegunetan, 14:00-15:30.
- Urriaren 16tik martxoaren 22ra.

2 Jose Antonio Agirre Euskaltegia (Algorta):

- Astearte eta ostegunetan, 08:00-9:30 edo 15:00-16:30.
- Urritik ekainera.

Autoikaskuntza, oinarrizko maila eta aurreratua:

3 Lauaxeta AEK Euskaltegia (Algorta):

- *Ikasgel@*: autoikaskuntza ordenadore bidez + mintza-saioak eta tutoretzak.
- Mintza-saioak eta tutoretzak astean behin eta zureru moldatutako ordutegian egiteko aukera.

Matrikulatzeko epea: irailean. Matrikulatzeko euskaltegietara joan behar duzu.

Prezioak: galdetu euskaltegietan.

Diru-laguntzak:

- Getxoko Udala: **getxotarrentzat** (baldintza ekonomikoak eta asistentzia) www.getxo.eus/euskara
- Bizkaiko Foru Aldundia: euskara ikasle **bizkaitarrentzat** www.bizkaia.eus/euskaratxartela
- **HABE:** HABEren mailaren bat edo baliokidea gainditu behar www.habe.euskadi.eus

OHAR GARRANTZITSUA: eskertuko genizuke informazio hau zure establezimenduko langileei ere helaraziko bazenie.

Ikastaroei buruzko informazioa			Diru-laguntzei buruzko informazioa
Euskaltegi Municipal Lope de Vega 12 (Romo) 94 466 62 99 euskaltegi@getxo.eus www.getxo.eus/eu/euskaltegi	Lauaxeta AEK Euskaltegia Iparbide 6 (Algorta) 94 430 47 34 lauaxeta@aek.eus www.aek.eus/blogak/uribekosta/	J. A. Agirre Euskaltegia Algortako etorb. 104 (Algorta) 94 460 66 71 j.a.agirre@euskalnet.net www.jagirre.net	Euskara Zerbitzua Getxoko Udala 94 466 00 10/11 euskara.zerbitzua@getxo.eus www.getxo.eus/euskara